

Hiru pisukideren istorioa

Udaberriko asteburu batean, Altsasuko Gazte Asanbladak etxebizitzari buruzko jardunaldiak antolatu zituen.

Larunbatean, adibidez, etxebizitza duinaren aldeko ekimena antolatu zen. Foruen plazan kanpin dendak jarri eta kanpaldia egin zuten. Arratsaldean mahai ingurua gaztetxean eta ogitarteko batzuk jaten eta sagardoa edaten bukatu zuten eguna. Euskal herriko hainbat lekutatik etorri ziren gazteak, oso giro polita zegoen plazan.

Igande goizaldean Guardia Civil patruila bat ibili zen Altsasuko kaleetan zehar, ohiko buelta ematen eta eliza ondotik pasatzerakoan zerbait arraroa igarri zuten, patroletatik jaitsi eta kanpaldira hurbildu ziren. Han hasi ziren baimenak eskatzen, identifikazioak egiten eta iskanbila sortu zen. Berehala azaldu ziren 6 furgona eta kanpaldikoei eraso zieten.

Gazteek zenbait alde egin zuten. Gehienak tabernetan sartu ziren eta horrela egin zuten topogure hiru pertsonaiek: Inaxiok, Maikak eta Urkok.

Lehenengoa donostiarra zen, aita enpresaria eta diruduna aitak soldata ematen ziolako hilerok. Dena dela, mutilari mugimendu alternatiboak gustatzen zitzaizkion.

Maika, ordea, tolosarra, neska azkarra zen, goi mailako ikasketak bukatzen ari zena, dena beken bidez.

Azkena Urko eskalatzaila lanbidez.

Han zeuden tabernako ateko kristaletik begira, oso urduri. Bi ordu zerematen tabernan. Kanean ez zen inor ikusten.

Aurrena Maika ausartu zen, atea zabaltu eta karrika bare zegoen. Orduan keinu bat egin zien tabernakoei eta ateratzen hasi ziren pixkanaka. Urko eta Inaxio izan ziren hurrenak.

- Joan dira – esan zien Maikak.
- Bai, hala ematen du. Bazan garaia – Inaxiok.
- Ze “librada” ia-ia ez naiz iritsi. Izugarritzko kolpea jaso dut hankan, begira nola daukadan. Hau mina ematen didan!

Istilua pasata zegoen, jende gehiena kalera zihoan pixkanaka-pixkanaka. Hiru gazteak lagunak egin ziren.

- Anbulatoriora joan beharko naiz, lagunduko didazue? – Urkok.
- Bai noski. Ea nola egiten dugun zuk oinaze gutxiago har dezazun – zion neskak.

Halaxe abiatu ziren, Urko gizajoa txingaka beste biei bizkarretik helduta. Poliki-poliki zihoazen. Azkenean iritsi ziren larrialdietara.

Handik ordu eta erdira atera ziren.

- Eskerrak analgesikoa eman didan. Ezin nuen holako mina jasan. Joe, tibia eta peronea puskatuta... Akabo espedizioa! Hainbeste denbora daramat prestatzen eta... kaka zaharra!
- Lasai, motel, beste batzuk egongo dira. Orain zure burua zaindu behar duzu.

Zauritua ezin zen gehiegi mugitu igeltsu eta guzti; hala ere, gaztetxeraino iritsi ziren.

Eguerdiko ordu biak ziren, ze orroak egiten zizkien sabelak. Plater konbinatu bana eskatu zituzten. Bitartean han zeuden Altsasuko etxebizitzari buruzko liburuxka batzuk kuxkuxeatzen hasi ziren. Han zeuden herritar batzuekin hizketan aritu ziren horri buruz. Beraiek kontatu zieten gaztetxetik gertu etxebizitza potente bat zegoela eta hiru lagun berriak ikustera joan ziren bazkal ostean. Asko gustatu zitzairen eta bertan lo egitea erabaki zuten.

Horrela hasi zen hiru pisukideren historia.